




EKONOMIA SENTIMENDUA

Euroguneko sentimendu ekonomikoa baikorra da oraindik

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

IRAILEKO DATUA

117,8



Irailean, euroguneko ekonomia sentimendua zertxobait igo zen, 117,8 puntura iritsiz. Uztailean lortutako errekorra baino puntu bat beherago badago ere, adierazle horrek erakusten duen irudia baikortasunari oso maila altuetan eusten diola da. Adierazle horren bost osagaiak oso aldeko posizioetan daude, bereziki industria, markarik onenetik lau hamarrenetara baino ez baitago. Orobat, azpimarratzekoa da eraikuntzaren sektorearen hobekuntza ere, pandemia hasi zenetik izandako daturik altuena


lortu zuelako. Beste aldetik, kontsumitzailearen konfiantzak gora egin du aurreko bi hilabeteekin alderatuta. Aitzitik, bai zerbitzuek, oro har, bai txikizkako merkataritzak intentsitate pixka bat galdu dute, nahiz eta egoera onean jarraitzen duten.

Enpleguaren igurikimenean adierazleak gora egin zuen berriro, bai euroaren eremuan, bai Europar Batasunean, eta 113,6 puntura iritsi zen, 2018ko erdialdetik izandako mailarik altuena baita.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR
BATASUNA

IRAILEKO DATUA

116,6




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Alemaniak errekor berria ezarri zuen bere sentimendu ekonomikoan, 118,0 puntura iritsi baitzen. Herrialde horretan, industriaren indarra nabarmentzen da, hilabete honetan ere bere posizio altuena erregistratu baitu. Gainerako osagaiak posizio onetan daude, baina erregistro altuenetatik urrun. Espainian ere hobekuntza gertatu da eta uztaileko balioa gainditu du, nahiz eta zenbait puntu falta zaizkion erregistrorik onena berdintzeko, 2000. urteko apirilean lortu zena. Industriak baikortasun handia erakusten du, eta zerbitzuak sendo doaz aurrera.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Kontrako norabidean, Frantziak bigarren atzerapausoa eman zuen eta uztailean gozatu zuen une onetik aldendu da. Txikizkako merkataritzan atzerakada oso garrantzitsua izan da, ezkortasun eremura igaro baita. Gainerako osagaiak egoera baikorreen daude, nahiz eta industriak eta zerbitzuek intentsitatea galdu duten. Azkenik, Italian irailean berriro okertu zen sentimendu ekonomikoa, baina osagai guztiak posizio sendoan daude, batez ere industria eta eraikuntza.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europako Batzordea.